

EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN FINANTZA LAGUNTZA JASO DUTEN AFA-REN JARDUERAK

2. ARDATZA: Enpresaburuen gaitasuna sendotzea

Neurria: Enpresaburuentzako informazioa eta aholkularitza

1. ekintza.- Hitzarmena AJEBASK Álava-rekin

Azalpena:

Euskadiko Enpresari Gazteen Elkartearekin (Arabako atala) elkarlanean gauzatutako proiektua da, helburua lan sorkuntzari laguntzea izanik. Hainbat jarduera dira, hala nola:

- Lan poltsa: enpresen beharrei berehala erantzuten die, eta enplegu eskatzaileei lana bilatzeko dauden moduak azaltzen zaizkie eta enpresei, berriz, lan poltsa hori badela eta zerbitzuak eskaintzen dituen aukerak azaltzen zaizkie.
- Enpresa ekimenen eskola gaztea: enpresak sortzen interesatuta dauden enpresaburu eta sustatzaile gazteentzako ikastaroak, enpresetako esperientziei buruzko jardunaldi eta hitzaldiak eta enpresaburuentzako nazioarte mailako prestakuntza.
- Enpresaburuen arteko topaketak, enpresaburu gazteen proiektu berriak sortu eta garatzeko eta elkarreragina gauzatzeko asmoz.
- Arabako Enpresaburu Gaztearen Saria, enpresa ekimenak sustatu eta bultzatzeko, baita autoenplegua ere, lana aurkitzeko edota etorkizuna bermatzeko bidea den aldetik.
- Dirulaguntzen inguruko aholkularitza

Neurria: Enpresaburuen prestakuntza enpresak sortu eta garatzeko

1. ekintza.- Hurbil (prestakuntza eta laguntza)

Azalpena: Landa ingurunean bizi diren adinekoentzako hurbiltasun zerbitzua abian jartzean datza proiektu hau. Izan ere, eguneko arretarako landa zentroak sortzearen bidez, landa inguruneke emakumeek eta beste talde batzuek mikroenpresetan lan egin dezatela bultzatzea da asmoa. Proiektu horretako ekintzak 3. neurrian ere jasotzen dira: Enplegu sorgune berriak ezagutu eta zabaltzeko ekintzak.